

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3125

76/2024 DEKRETUA, ekainaren 18koa, zeinaren bidez Centro Cultural Manchego Castilla-La Mancha «Don Quijote» izeneko elkartearen onura publikoaren aitortpena ezeztatzen baita.

Centro Cultural Manchego Castilla-La Mancha «Don Quijote» izeneko elkartearen onura publiko-koa deklaratu zen Ministroen Kontseiluak 1970eko urriaren 23ko bileran hartutako erabakiaren bidez.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikulua dionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuak arautzen ditu onura publikoaren aitortzea lortzeko, mantentzeko eta ezeztatzeko bete behar diren baldintzak eta prozedura.

Horrez gain, aipatutako ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 44. artikulua, onura publikoko elkarten betebeharrari buruzkoak, ezartzen du onura publikoaren aitortpena duten elkarteek aurreko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu behar dituztela Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean, ekitaldi hori amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan.

Ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 45. artikulua araberak, onura publikoaren aitortpena Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez ezeztatu ahal izango da, baldin eta aitortpen hori eragin zuten betekizunak betetzen jarraitzen dela egiaztatzen ez bada edo elkarte-mota horri dagozkion betebeharrak behin eta berriz eta modu larrian urratzen badira.

Babesletzaren 2024ko ekainaren 7ko txostenean adierazitakoaren arabera, elkarteak ez du bete kontuak epearen barruan aurkezteko eginbeharra, 2019, 2020 eta 2022ko ekitaldiei dagokienez. Ez-betetze hori larritzat eta behin eta berriz egindakotzat kalifikatu da Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren 2024ko ekainaren 7ko Ebazpenaren bidez. Ebazpen horrek amaitutzat ematen du elkartearen onura publikoaren aitortpena ezeztatzeko hasitako prozeduraren instrukzioa, dagozkion informazio-eginbideak eta gainerako izapide egokiak egin ondoren eta dekretu hau ematea proposatzen du. Hori guztia, uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuaren 21-27 artikuluetan xedatutakoa betez.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, emandako txostena ikusi ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024ko ekainaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Centro Cultural Manchego Castilla-La Mancha «Don Quijote» izeneko elkartearen onura publikoaren aitortpena ezeztatzea, aitortpen horri dagozkion eginbeharrak larriki eta behin eta berriz ez betetzeagatik.

2024ko ekainaren 28a, ostirala

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, dekretua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, aukerako berraztertze- errekurtsoa aurkez daiteke aurretik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko ekainaren 18an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.